


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

TEORIA POLITIKO GARAIKIDEA

APUNTEAK

Irakaslea: Mario Zubiaga

31. taldea

2023/05/25

Bidane Bilbao Zarraga

Aurkibidea

1.- Zer da politika?	2
Askatasuna- Philip Pettite/Isaiah Berlin	4
Gubernamentalitatea- Foucault	7
G. Agamben: Homo Sacer	8
H. Marcuse: dimentsio bakarreko gizakia	9
SARA DIEHL- Maternidad y cuidado como servicio a la sociedad del rendimiento.	9
2. Zertaz ari da politika?	12
Rainer Forst. Justificación y crítica: Perspectivas de una teoría crítica de la política	12
John Rawls	12
Roberto Gargarella. La teoría de la justicia de John Rawls (Kokapena)	12
Teoria de la justicia: la justicia como equidad (Teoria)	13
La teoria politica de John Rawls: una apologia de un lliberalismo politico formalista y elusivo de la materialidad politica (Kritika)	14
(Sandel on Rawls)	14
Jürgen Habermas. La desobediencia civil.	15
Hannah Arendt. Indarkeriaz.	18
Gezurra, Arendt.	19
Jean-Luc Nancy. Demokrazia	21
3. Non egiten da politika?	22
Estatuaz eta Nazioaz	22
Estatuaz eta Soberaniaz	24
Soberaniaren doktrina juridiko-politiko (C. De Cabo)	24
Saskia Sassen	26
Suntsipen sortzailea: Agentea, eskubideak, lurraldea (Sassen)	31
Nazionalismo hutsala eta identitate nazionalaren erreprodukzioa Michael Billig	33
Hiria eta justizia, David Harvey	35
Sobre la nacionalidad, David Miller	37
Autodeterminazio eskubideari buruzko argudio lehia	39
2. Nork egiten du politika?	40
Zizek	40
Tolerantzia, Forst	41
Teoria politiko feministara lehen hurbilketa	41
3.- Nola egin aurrera? Politikaren errebindikazioa salbuespen egoeran	43
Agamben	43
Bensaid	43
Fundazio-teoriak, fundazio-kontrakoak eta fundazio-ostekoak	44
Hegemonia demokratizatzailearen motorra, Laclau	47
Forst	48

1.- Zer da politika?

Warrenen arabera, politika, zana behar izana eta ahal izana da. Hala ere, bere ustez, politikaren definizioak interes normatiboak argitzea, gaurko politika ulertzea eta politika zer den eta ez den definitzea eskaini beharko luke. Horregatik, Warrenen estrategia politika definitzeko politika zer ez den edo bakarrik zer ez den definitzen du. Beraz, Warrenek politika zer ez den esaten du, politika bakarrik zer ez den definitzeko. Gainera, portaerarekin parekatzen da, beraz, hurbilketa soziologiko batetik Politika da portaera politikoa. Hala ere, Warrenek politika definitzeko estrategia jarraituz:

1. Politika ez da jokaera, ez garelako asmo gabeko zomorroak, izan ere, ez dugu jokaera bat bakarrik, intentzioko nahiak, diskurtsoak... ere baditugu. Beraz, portaeraren azpian badago intentzio bat, kontzienteki izan ala ez.
2. Politika ez da jokia: ezin delako joko estrategiko arrazionalera mugatu. Freeryderraren arabera, aprobeitxategiaren dilema daukagu kasu honetan. Honen arabera, arrazoiaren bidez hartuko bagenituzke bakarrik erabakiak, ekintza kolektiboa ezinezkoa litzateke. Hala ere, politika ez da bakarrik kostu onura arrazionalaren bitartez bakarrik ematen eta askotan dilema hau apurtzeko teknikak daude, adibidez, manifa batean esertzean, orduan ezin da atzera egin.
3. Politika ez da esleipena bakarrik, baliabide materialak daude bezala baliabide sinbolikoak ere badaude.
4. Politika ez da erakundearen autoritatea eta hemen bi nabardura egin behar dira. Lehenengoa, erakundeek daukaten gaitasuna erabaki batzuk beharrezkotzat hartzeko eta hauek onartuak direnak izango dira. Bigarrena, autoritatea eta potestatearen arteko bereizketa. Izan ere, autoritatea, errekozimendua izango da, hau da, aitortzea, baina, politika ezinda honetara bakarrik mugatu. Horregatik, bi dimentsioak lotuta joan behar dira. Aipatu beharrekoa da, politikak badaukala autoritas hori baino potestasa ere badagoela.
5. Politika ez da boterea, baina, imajinatu dezakegu botere ez-politiko bat? Inongo adierazpenik uzten ez duen botere horrek ukatu egiten du politika logika totalitarista sortuz. Beraz, biolentziaren erabileraren ondorioz, politika ezabatua gertatuko zen.
6. Politika ez da gatazka, baina, gatazka politikoak ez direnak badaude? Izan ere, gatazka “ez politikoak” politizatu daitezke, nahiz eta, badauden gatazka batzuk izatez ez direla politikoak.

7. Politika ez da gizarte antolaketa edo ekintza kolektiboa.: dena ezin daiteke politikoa izan.
8. Politika ez da helburu ideologikoa, hau da, ez da Nire” politika bakarrik. Politika, politika izan beharko litzatekeena da, ez nik politika nola ulertzen dudana.

Aipatu beharreko beste autore bat Critchley da. Bere ustez filosofia desilusiotik abiatzen da. Gainera erlijiosoa edo politikoa izan daiteke eta hurrengo galderan oinarritzen da: Zentzua dauka bizitzak? Galdera hauek kutsu erlijiosotik abiatuta daude eta bi erantzun ditu, nihilismo aktiboa eta nihilismo pasiboa. Nihilismo aktiboaren arabera, ezer ez du zentzurik, beraz, dena suntsitu behar da zentzua daukan zerbaiti sortzeko; aldiz, nihilismo pasiboaren ideia, ihes metafisikoa da, hau da, ezer ez dauka zentzurik, baina, ihesbidea espirituala da.

Hala ere, suntsipenean oinarritzen dira biak eta dozein suntsipen mota izan daiteke adibidez bere testuan aipatzen den bezala, alkaeda. Beraz, berak helarazten duen mesua da munduak ez daukala zentzurik, dena pikutara bota dugulako, horregatik zerotik hasi behar garela berriz, giza abere berri baten bila.

Zapuzte politikoak aldiz, justiziari egiten dio erreferentzia, hau da, honek ez dauka zentzua ez delako justua eta honen aurrean, zerbait egin behar dugu, erantzun etikoa eman behar dugu. Honen azpian dagoen oinarri etiko bat, nihilismoaren azpian dagoen oinarri etikoa izan daiteke askotan. Izan ere, proiektu iraultzaile batek, dimentsio etiko bat dauka justiziarekin lotuta doa eta Critchely horren muinera doa, alegia, zein den oinarri etikoa aztertzeraz.

Honen esanetan, zure eta lagunaren arteko harremanean sortzen da dimentsio etikoa. Bestaren eskaera ase ezina izango da, ez zarelako zu. Hau ,oinarri oinarria izango zen, honek konpromisoa eta leialtasuna eskatzen baitu eta konpromisoarekin lotuta dago oinarri etikoa.

Askatasuna- Philip Pettite/Isaiah Berlin

Askatasunari dagokionez, Pettiten arabera, kontraesan batetik abiatzen gara eta Constantek dionez, helburu on guztiak ez daude armonian.

Teoria politikoaren muina, uztargarriak diren helburuak lortzea bada, bitartekoen inguru eztabaidagarrian. Nola lortuko ditugu helburu horiek? Helburuen inguruan eztabaidak daude, beraz, ez dira armonian bizi.

Isalah Berlinek ze puntutaraino da politika gaindigarria? Galdetzen du. Bere ustez, helburuak ez badira ez da inoiz izango gaindigarria. Helburuen artean badago, helburu nagusi on bat, baina, honek esan nahi du beste helburuak hortik aterako direla? Adibidez, komunismoa lortzen bada, beste helburu sozialak ere honen baitan lortuko ditugu? Isalah Berlinek, esango digu, helburuak onak direla baina ez uztagarriak.

Demokrazia eta Liberalismoaren arteko tentsioa edo Berdintasuna eta Askatasunaren arteko tentsioari dagokionez Constantek sailkapen bat egin zuen:

Antzinakoen askatasuna hainbat ezaugarriekin lotuta egongo zen:

Modernoen askatasuna: (Locke)

Berdintasuna VS Askatasuna

Demokrazia VS Liberala

- Askatasun politiko berdina
- Bizitza publikoaren balioak
- Konpromiso kolektiboa
- Erabaki publikoak hartzeko ahalmena

- Pentsamendu askatasuna
- Gizabanakoen eskubideak
- Jabego pribatuaren babesa
- Legearen inperioa

Isaiah Berlinekin jarraituz, berak bi askatasun bereizi zituen. Askatasun negatiboa eta askatasun positiboa. Askatasun negatiboak, zer edo norbaitekiko aske izateari egiten dio erreferentzia. Hau da, bestearen edota legearen esku hartzearen aurrean libre zara eta muga, bestearen askatasun negatiboan edo besteari kalte egitean dago. Askatasun positiboak, aldi, zerbaitetarako askatasunari egiten dio erreferentzia, hau da, nor bere bizitza propioa autogobernatzeko, erabakitzeko buru-jabe librea da. Beste era batera esanda, askatasuna nor

bere buruaren jabea izaten izango litzateke. Muga, Zer da propioa? Agerikoa ala sakonekoa autonomia? Oraingo edo gerokoa? Moduko galderek definitzen dute.

I. Berlinen harira, hainbat galdera desberdin egiten ditu askatasunari begira, adibidez, arrazoa eta askatasuna bat datoz? Zantzeko grina ezjakintasunetik badator, hortaz, arraziak askatuko gaitu? Askatasuna aitortpenaren berdina da? Zeren bila goaz benetan? Subiranotasun kolektiboa askatasunaren etsaia da?

Berlinek azken galdera orreri erantzuteko, askatasuna negatiboaren alde egiten du. Balio onen uztargarritasun (ez)az, harmoniarik ez dago. Gainera, balio on asko daude baina denak batera tentsioan egoten dira, onen artean ere inkoherentzia edo kontraesanak sortzen dira eta sortu izan baitira.

Halaber, badaude askatasunaren lotura batzuk definituta. Hala nola, X banakoa Y-ren eraginekiko aske da Z egiteko (edo ez egiteko). Naturari dagozkion Y-ak ezin dira oztopa izan, baina zer da naturala? Merkatua?

Nozicken ustetan, askatasun positiboa izateko ez da nahikoa askatasun negatiboa bermatua izatea - autonomiak gehiago behar du-, baina beharrezkoa da. Ezinbestekoa, eta baldintza ezina, libertarioen iritzian.

Talde gisa, aitzitik, askatasun negatiboa erabatekoa ez da ezinbestekoa. Talde baten askatasuna negatiboa mugatu daiteke, gizarte osoaren askatasun positiboa zabaltzeko. Interferentzia eza hori, neurri batean onargarria izan daiteke, askatasun positiboan (ikuspegi kolektibo batetik), beraz, ez da ulertu behar modu absolutu batean.

Aske izatekoa aukerak gure gotorlekuan babestu behar ditugu. Halabeharrez nahi duzuna egin ahal izatea. Hau da, zure nahia/borondatea mugatuta dago eta muga horren arabera askatasuna edukitzea, nahi hori egiteko. Adibide moduan jarriko dut, azeria eta mahatsak mekanismoa; azeria ez da mahatsak hartzera iristen eta hori ikustean oraindik ez direla heldutu aldarrikatuko du. Hau nolabaiteko auto mugaketa bat izango litzateke.

Petitek, Isabel Berlineri kritika egiten dio, zentzu batean. Bakoitzak erabakitzen badu zein den aske izateko modua askatasuna “hau da” izango da. Beraz, modu kolektiboan lehenetsi egiten du askatasun negatiboa. Bestalde, gizarteak definitzen du zer dan burujabetza izatea. Balio asko daude, askatasuna, ongia... baina denak batera ez dira guztiz egokiak, onak direnen artean ere inkoherentziak, tentsioak edo kontraesanak sortu daitezkeelako.

Philip Petitek ikusmolde errepublikarra du, Skinnerren, antzinakoen askatasunean oinarrituta. Berliri kritika egiten dio, bere ustez, askatasuna dikotomiatik haratago zigoalako, berak askatasuna dominazio-eza gisa definitzen zuen, hau da, Dominazioa edo menderatzea esku-hartzea edo interferentzia, dominazio-eza, esku-hartze ez-arbitrarioa edo ez nahitakoa.

Gainera, interferentzia ezaz gozatzeko, dominazio-eza behar dugu, hau dagoenenean, aukeren kopuru teorikoak ez du garrantzirik, ziurtasunez modu ez arbitrarioan hautatu ditzakezun aukerak baizik. Bere esanetan, interferentzia-eza ziurra, dominaziorik gabea, edo interferentzia ez-arbitrarioa alegia, ez dena dominaziotik sortzen, hau izan litzake, askatasun errepublikarra.

Philip Pettien printzipio Nagusia, dominazioa eta interferentzia gauza bera ez direla da. Izan ere, dominazioa interferentziarik gabe egon daiteke eta interferentziak egon daitezke dominaziorik gabe. Bestalde, dominazioa eta interferentzia egon daitezke era berean, baina orduan ez dago askatasunik. Hau da, dominaziorik gabeko egoera batean interferentzia bat egon daiteke, baina ezin du izan arbitrarioa bestela, dominazioa izango litzateke eta esku hartze arrazoitua izan beharko litzateke. Beraz, interferentzia ezaz gozatzeko, hau da, “nigan ez du inork esku-hartzen” dominazio eza behar dugu.

Laburbiltzeko, aukeratzeko mila gauza dituzu baino aukeratzeko ez da dominazio egonbehar. Horregatik, interferentzian oinarritzen diren diskurtsoek alde batera uzten dute dominazioarena.

Errepublikar askatasun kolektiboak, askatasuna lotzen zuen gehiago ziurtasunarekin. Boteretsuen interferentziarik ez jasotzeko eskubidearekin. Boteretsuek ez dezaten mugatu nire bizitza modu arbitrarioan. Ibilbidean, aberastu egiten da beste elementu batekin:

dominazioari garrantzia gehiago ematen zaio eta ez hainbeste interferentziari. Horrekin, dominazio motak datoz.

Nagusi ez arbitrarioa da nagusi demokratikoa, guk kolektiboki, gobernatuz. Gobernazio demokratikoa bada, jada ez arbitrarioa, jada ez digu mugatzen, are gehiago, gure askatasunaren bermea da. Dominazio ez arbitrarioa, guk kolektiboki erabakitzen duguna da. Lege demokratikoaren dominazioa, dominazio eza da. Honek, ez du gure askatasuna mugatzen. Herritar askeak posibleak dira, herri aske batean. Aske esaten dugunean, demokratikoki, edo jende guztiaren askatasun guztiak batuta osatzen dugun herria. Hau ez da bakarrik, lotzen askatasun positiboarekin hau gainditu egiten da. Gu gure buruaren jabe

garenean, lortzen dugu askatasuna. Askatasun negatiboa gehiago barneratu da Petitek dioenez.

Gubernamentalitatea- Foucault

Foucaltek agintea eta agintzea nola ulertu den planteatzen duen hipotesia da, hau da, tentsio bat egon dela bi kontzeptuen artean, Makiavelok transmititzen duen boterearen transzendentzia eta La pierren gobernuaren inmanentzia.

Makiaveloren arabera, agintea lurraldearekin lotura dauka eta erreinua mantendu behar da. Eztabaida sortzen da, printze horrek botereari nola eusten dion aukeratu behar denean.

XVII. Mendean beste kontzeptu bat garatu zen. Gobernuaren inmanentzia, hemen gobernu gizartearen baitan dago. Beraz, helburua pertsonen eta gauzen gobernu ona lortzea, pertsonak eta hauek eskatzen dituzten gauzak ondo kudeatzea da. Hortaz, lurralde baino gehiago, pertsonen eta gauzen gobernuaren kudeaketa izango litzateke.

Etxea eta estatua nola gobernatu behar diren jakiteko La Pierrèren arabera morala sartzen da. Gobernatzeko artea ekonomiatik aterata egongo zen, etxea gobernatzen zuen gizonak egiten zuen modua oinarri hartuta, beraz, ekonomiaren transposizioa izango da etxea kudeatzearena. Hala ere, hau armonia batean emango da eta horretarako pedagogia egin beharko da. Hau da, errepresiorik gabe, zigorrik gabe eta indarririk gabe eman behar da. Familia patriarkala estatura pasatze, alegia, ez da bakarrik zure emaztea edo alaba pasatzea baizik eta erreinuko biztanle guztiak.

Gainera, estatistika garatuko da eta honek datuak ahalbidetuko ditu. Datu hauek izango dira, ekonomia erregulatzeko estatuak beharko dituen datuak. Logika honetatik, familia patriarkaletik populaziora, estatistikaren eskutik pasatuko da erregulartasunak atzemanek. Familia (ekonomia), jada kontrol-tresna gisa ulertzen baita, ez eredu gisa eta honek herritarren infantilizatzea dakar.

Gubernamentalitateak ematen duen jauzia, dimentsio Makiaveliarra (boterea eutsi, lortu) eta dimensio Pierrereak, biak ustartu egiten ditu (XIX. mendetik aurrera).

Michel Foucaulten ustez, boterea harreman dinamikoa eta lausoa da, diskurtso-praktiken eta materialen bidez gauzatzen dena une eta leku jakin batean, eta ezin da ulertu modu zentralizatuan eta norabide bakarrekoan eduki edo gauzatzen den zerbait bezala. Boterearen

ikuskera horrek eragin handia izan du arlo askotan, soziologian, filosofian, antropologian eta kultura-ikasketetan, besteak beste.

Biopolitika Michel Foucaultek garatutako kontzeptu bat da, boterea eta administrazioa bizitzan eta giza gorputzetan nola gauzatzen diren deskribatzen duena, eta medikuntzaren, biologiaren, demografiaren eta ekonomiaren bidez giza bizitza erregulatzen eta administratzen du. Friedrich Nietzschek eta Michel Foucaultek antzeko ideia batzuk izan dituzte boterea giza bizitzan nola gauzatzen den. Filosofia biek kritikatu dute boterea nola erabili den giza bizitza arautzeko eta kontrolatzeko.

Nietzscheren biopolitikak eta filosofiak uste dute boterea modu negatiboan erabili dela giza bizitzan, baina Foucaultek boterea bizitzaren erregulazioaren eta administrazioaren bide gauzatzeko moduari erreparatzen dion bitartean, Nietzschek arreta handiagoa jartzen du moralitasunak eta kulturak bizitzarekiko negatibotasunean lagundu duten moduan.

G. Agamben: Homo Sacer

Berak egiten duen lehenengo sailkapena: Zoe (natura eta etxea-oikos) vs Bios (theoretikos, apolaustikós, politikós-polis).

Zoe, guk bizi dugun bizitza da. Animalien bizitza bizia. Bios, adlitz, etxeko publikoari eusten dio. Beraz, Bio-politikaren arabera, politikak muturra sartuko du naturan eta etxean Zoe-a baldintzatuz. Eta aldi berean, Homo-laborans-en etxekotzea. Jada ez da, etxean dagoen gizakia edo aisian dagoena baizik eta erdibidean dagoen zerbait. Pandemiaren ondorioz, homo-laborans hau etxekotu egin da.

Finean, bizitza hutsa, honen kudeaketa da gaur egungo politika. Horrek kudeatzen baitu gure bizitza eta natura. Hortaz, bio-politikak eta nekropolitikak bi txanponen aldeak ditu, sakratua (biopolitika) eta sakrifrikagarria (nekropolitika) denaren kudeaketa, tentsio honen salbuespen etengabearen egotera garamatza, ez dakigulako noiz izango garen zer, edo sakratuak ala sakrifrikagarriak.

H. Marcuse: dimentsio bakarrekoko gizakia

Teoria kritikoak bizitza duina, zer den, eta ia posible den aztertzen du aberastasuna eta pobrezia oinarri hartuta. Honen arabera, dagoena da, geratzeko heldu da eta ez dago besterik. Kritikaren krisiak dio konponbide teknologikoak aldaketa ekiditen duela, aldaketa inoiz baino beharrezkoa denena. Honen arabera, teknologia ez da neutrala proiektu politiko bat baizik, naturaren esperimentazioa, eraldaketa, antolaketa, domeinurako gai gisa. Teknologia kontrol eta babes sozialerako forma gero eta eraginkorragoa eta atsegina da, askatasunik gabeko gizarte asko eroso, leuna, zentzuduna, demokratikoa eta aldi berean, totalitarioa sortzen duena. Gainera alternatibak beti daude statu quoaren baitan eta beharrezkoen manipulazioa, indarrean dauden interesen arabekoak dira.

Marcisenzat askatasun ekonomikoa, ekonomiatik aske izatea da; askatasun politikoa, kontrolrik gabeko politikatik aske izatea eta askatasun intelektuala, masa doktrinamendutik aske izatea da.

Beraz, askatasuna ez da erabakitzaile aukerak edukitzea, baizik eta, zer aukeratu dezakegun. Zer aukeratzen dugun, merkantziak egiten gaitu nor, pribatutasuna kolonizatu; ni-gizartea, bat. Operazionalismo zientifikoa eta behaviorismo soziala jarduera oro posible eta zilegi egiten du. Hau arrazionalitate teknologikoa domeinurako tresna da.

SARA DIELH- Maternidad y cuidado como servicio a la sociedad del rendimiento.

- Esferak publikoa eta pribatua, familia nuklearrak

Bizitza bi esfera moten artean banatzen du: esfera publikoa eta esfera pribatua. Esfera publikoan lana, politika eta gizarte dago. Esfera pribatuan berriz, familia etxea. Berez emakumeak eta gizonak, gizartean gertatutako aldaketen ondorioz bi esferetan daude, bien parte dira. Baina emakumeak, dakigunez urte askoz egon dira soilik esfera pribatuan etxeko zaintzaz arduratzen. Arrasto hau oraindik gure gizartean oso presente dago eta emakume gehienek esfera publikoan, lan ordaindu batean daude eta esfera pribatuko zaintzez arduradunak dira.

Askotan emakumeak esfera honetan lan egitera bultzatzen zaie gizartetik. Beraien balorea zaintzen eremuan dagoela pentsaraziz. Emakumeen lan mundua (esfera publikoan) gizonena baino konplexuagoa da, beirazko sabairekin eta soldata arrakala direla eta. Hauek beraien arrakasta geldiarazten dute.

Arrakasta falta hau dela eta arrakasta esfera pribatuan bilatuko dute, familia nuklear bat sortuz, seme-alabak izaten. Umeen zaintza beraien lana bihurtuko da gizarteak erakutsiko dielako umeen heziketa on baterako beraien papera oso garrantzitsua dela. Hauen adibide dira bi mito oso zabalduak: loturaren mitoa eta naturaltasunarena.

- Loturaren mitoa: umeak beraien amari lotuta daude eta oso garrantzitsua da beraien ama beraiekin egotea, ezin da umeaz banatu. Beraz, aita eta estatua ez dira beharrezkoak lan guztia amarena da.
- Naturazko egoera: ama zaintzaz arduratzen da bere barruan, bere naturaren parte delako. Horretarako bizi da, zaintzak emateko. Zaintzen bidez bere maitasuna eta bizitzaren zentzua aurkituko du.

Horrela sortzen dira bi lan dituzten emakumeak: esfera publikoan (lan ordaindu, soldata arrakalarekin eta beirazko sabaiarekin) eta esfera pribatuan (familia eta etxearen zaintzaz).

Oso garrantzitsua da aipatzea familia nuklearretan, arrakasta gizonarena izango da. Gizonak esfera publikoan lan egingo du eta etxera diru gehiago ekarriko duenez bera familiaren heroia izango da, errekonozimendu guztia merezi du. Amak, berriz, bere lana ez da baloratua izango, bere naturaren parte delako. Naturala dena ez du goraiamenik merezi.

- Soldatapeko zaintzak eta zaintzen migrazioa

Familia nuklearren eta emakumeen lan karga hau sortu du soldatapeko zaintza. Nork egiten du lan hau? Beste herrialdeetatik datozen emakumeak. Hauek beraien etxeak uzten dituzte herrialde aberatsen etxeak zaintzeko eta joaterakoan askotan haien seme alabak amonaren zaintzaren kontura uzten dituzten eta horrela, zaintzen migrazioa sortzen da. Hau da, lan prekarizatua eta berriz ere, emakumeei zaintzen zama jarritz.

Emakume txarrak

- Seme-alabak ez izatea erabakitzen duten emakumeak

Familia bat ez sortzea erabakiko duten emakumeak gizartearen ikuspegitik ez dira burutik sano egongo, ondorio psikologikoak sufrituko dituzte behintzat kulpa sentituko dute. Dielh-entzat errealitatea ez da horrelakoa, gizartearen esanez eta erloju biologikoaz ahaztu egingo dira eta mito asko faltsutzat hartuko dituzte. Askok esaten dute, umeak ez dituzten emakumeak, neoliberalismoaren ondorioz izan dela, autorearentzat ez du zentzu handia. Ez du uste emakumeek hautua egin dutela beraien etorkizun profesionalaren eta amatasunaren

artean. Emakumeak ez dute lanaren alde hautua egin beraiek bizitza politiko eta sozial handiagoa eta bikotearen dogmatik alde egiteko hautua egiten dute familia bat sortzearen kontra egiterakoan.

- Regretting mothers eta aborto

Regretting mothers izango dira abortu batetik pasa diren emakumeak eta ondoren damutuko direnak. Dielhentzat emakume mota hauek ez dira fenomeno nagusi bat gizartean, emakumeak errudun sentitzeko sortutako diskurtso bat da soilik.

Ez dira gizartean abortatu duten emakumeei buruzko diskurtsoak entzuten, lotsatuak edo errudun sentitu behar direlako. Baina berez, abortua pentsatzen duguna baino ohikoago da. Mundu mailan 3 emakumeetatik 1ek abortu bat jasan behar izan du.

Abortuaren harira, autorea galdetzen dio bere buruari non dago gorputza, zein eremuetan. Ondorioztatzen du, emakumeen gorputza oso publikoa dela eta AEBko adibidea jartzen digu. Estatu batuarrek emakumeen gorputzen inguruko 400 lege baino gehiago dituzte eta gizon gorputza ezta bat ere ez.

- Autoreak proposatzen duen irtenbidea

Autoreak ekartzen digu la tipologia del vago . Berarentzat, alferra imajinatzerakoan eta figura literarioetan baita gizona agertzen da. Gizon hau, sinpatikoa da, ez du ezer egiten baina, sistemaren aurka doa. Nolabait, nahiz eta bere helburua ez izan heroiaren rola lortu dezake, etekin konstanteko gizarte honetan kontra doalako.

Baina rol hau pelikula batean emakume batek interpretatzen badu, erakutsiko zaigu nola emakumea ez dago burutik sano!! Minimo depresioa dauka. Oso triste dabil ez delako ama edo ez delako ama ona.

Horregatik autoreak proposatzen digu, alferkeria birjabetzeko garaia iritsi dela. Emakumeak baita, badugula gure denborarekin zerbait hobea egiteko aukera eta nahia. Gizartearen diskurtsoa albo batera utzi behar dugu eta kulparen sentimenduaz ahaztu behar gara. Kulparen bidez exigentziak sortzen bai dizkigutelako. Utz behar diogu bekatari sentimendua izateari.

Eta zaintzekin orduan zer gertatzen da? Beraren ustez zaintzeko gaitasuna denona da eta denok, bai emakumeak bai gizonak, gaitasuna dugu hauek egiteaz.

2. Zertaz ari da politika?

Rainer Forst. Justificación y crítica: Perspectivas de una teoría crítica de la política

Bere "Justifikazioa eta kritika: politikaren teoria kritiko baten ikuspegiak" liburuaren lehen atalean, Rainer Forstek justiziaren bi irudi aurkezten ditu: justiziaren irudia harmonia gisa eta justiziaren irudia borroka gisa.

Justiziaren lehen irudia, harmonia gisa, honako ideia honi dagokio: justizia gizartean lehendik zegoen oreka edo ekitatea gauzatzea da. Irudi horren arabera, justizia gizartearen ondasunak eta baliabideak zuzen banatzen direnean lortzen da.

Justizia borroka gisa duen bigarren irudiak, bestalde, justizia interes eta behar dibergenteak dituzten hainbat gizarte-talderen arteko borroka etengabearen emaitza dela dio. Irudi horretarako, justizia ez da alde zuzenetik emandako zerbait, gatazkaren eta negoziazioaren bidez eraikitzen baita.

Forstek dio bi irudiek abantailak eta desabantailak dituztela. Justizia harmonia gisa irudikatzea baliagarria izan daiteke gizarte zuzen batek zer esan nahi duen ulertzeko, baina justiziaren aldeko borrokan atsegina eta ekintzarik eza ere ekar ditzake. Bestalde, justiziaren irudia borroka gisa eraginkorra izan daiteke ekintza politikoa eta justiziaren aldeko borroka mobilizatzeko, baina polarizaziora eta etengabeko gatazkara ere eraman dezake.

Azken batean, Forstek argudiatzen du justiziaren teoria kritiko batek justiziaren bi irudiak jaso behar dituela, eta aitortzen du ekitatearen beharra eta gizarte justu bat eraikitzeko gatazkaren ezinbestekotasuna.

John Rawls

Roberto Gargarella. La teoría de la justicia de John Rawls (Kokapena)

Bere "La teoría de la justicia de John Rawls" liburuaren lehen atalean, Roberto Gargarellak Rawlsen lanaren sarrera bat eta justizia ekitate gisa duen teoria aurkezten ditu. Gargarellak, hasteko, azaltzen du Rawlsek nola erantzun nahi dion filosofia politikoaren funtsezko galderari: nola ezar ditzakegu printzipio zuzenak gizartearen oinarritzko egiturarako?

Gargarellaren arabera, Rawlson justiziaren teoria oinarrizko bi printzipiotan oinarritzen da: guztiontzat berdina den askatasunaren printzipioa eta ezberdintasunaren printzipioa. Lehenengoak ezartzen du pertsona bakoitzak oinarrizko askatasun bera izan behar duela bere helburuak eta bizi-planak lortzeko, eta bigarrenak, berriz, desberdintasun ekonomikoak eta sozialak egoera txarrean daudenei mesede egiten badiete bakarrik direla bidezkoak.

Gargarellak dio Rawlson teoriak eragin handia izan duela filosofia politiko garaikidean, eta eztabaida eta kritika ugari izan dituela. Adibidez, kritikari batzuek argudiatzen dute Rawlson teoria abstraktuegia dela eta ez dituela behar beste kontuan hartzen desberdintasun kulturalak eta errealitate politiko zehatzak.

Hala ere, Gargarellak defendatzen du Rawlson justiziaren teoriak garrantzitsua eta baliotsua izaten jarraitzen duela, bereziki, erabaki politikoak hartzeko bidezko prozesuak ezartzera bideratutako "prozedurazko" teoria gisa ulertzen bada. Gargarellaren arabera, prozedura-ikuspegi hori bereziki baliagarria izan daiteke gizarte demokratiko pluralista eta konplexuetan justizia-printzipioak nola ezarri pentsatzeko.

Teoria de la justicia: la justicia como equidad (Teoria)

John Rawlson justiziaren teoria, "Justiziaren teoria bat" lanean aurkezten den bezala, justizia ekitate gisa ulertu behar delako ideian oinarritzen da. Rawlsek justiziaren teoria bat ezarri nahi du, gizarte pluralista bati aplikatu dakiokeena, non ongiaren eta bizitza onaren ikuskera desberdinak dauden.

Rawlson arabera, justizia ekitate gisa bi printzipiotan oinarritzen da: askatasunaren printzipioa eta ezberdintasunaren printzipioa. Askatasunaren printzipioak ezartzen du pertsona bakoitzak oinarrizko askatasun eta eskubide multzo bat izan behar duela, eta horiek Estatuak babestu behar dituela. Askatasun horien artean sartzen dira pentsatzeko, adierazteko, elkartzeko eta okupazio bat hautatzeko askatasuna.

Bestalde, ezberdintasunaren printzipioak ezartzen du ezberdintasun sozial eta ekonomikoek gizarteko kide behartsuenei mesede egiteko moduan diseinatuta egon behar dutela. Hori lortzeko, ezberdintasunek denei irekitako posizio eta karguei lotuta egon behar dute, aukera-berdintasuneko baldintzetan. Bestela esanda, egoera ahulenean daudenen egoera hobetzen laguntzen badute bakarrik justifikatu daitezke ezberdintasunak.

Rawlsek dio printzipio horiek berdintasun-baldintza egokietan aukeratu behar dituztela pertsonen, jatorrizko egoera batean, non ez baita ezagutzen gizartean zer leku hartuko den eta gizabanako bakoitzaren ezaugarri bereziak. Horri "ezjakintasunaren beloa" esaten zaio. Rawlsten arabera, baldintza horiek betez gero, pertsonen printzipio horiek aukeratuko lituzkete, gizarte justua eta guztiontzako bidezkoa bermatzen dutelako.

Rawlsten justiziaren teoriak kritikak eta eztabaidak izan ditu, batez ere ikuspegi abstraktuarekin eta kultura- eta gizarte-aniztasunarekiko arretarik ezarekin lotuta. Hala ere, bere lanak eragin handia izan du filosofia politikoan eta justiziaren teorian, eta azterketa eta analisi ugari egin dira.

La teoria politica de John Rawls: una apologia de un liberalismo politico formalista y elusivo de la materialidad politica (Kritika)

Kapitulua Rawlsten lan nagusiaren, "Justiziaren Teoria" ren, eta "justizia ekitate gisa" kontzeptuaren deskribapenarekin hasten da. Arcosek azaldu duenez, Rawlsek justiziaren teoria bat ezarri nahi du, gizarte pluralista batean aplikatzeko, non ongiaren eta bizitza onaren ikuskera desberdinak dauden.

Ondoren, kapituluak Rawlsten "liberalismo politikoa" ren nozioa du ardatz. Ideia horren ezaugarria da Estatuak neutrala izan behar duela gizartean dauden ongiaren eta bizitza onaren ikuskera desberdinei dagokienez. Arcosen arabera, Rawlsten liberalismo politikoa norbanakoen eskubide eta askatasunak babestera eta espazio publiko bat sortzera bideratzen da, non pertsonen eztabaidatu eta arrazoizko akordioak lortu ahal izango dituzten.

Arcosek Rawlsten teoria politikoari egin zaion kritikari ere heltzen dio. Teoria horren arabera, bere ikuspegia abstraktuegia da eta ez du errealitate politiko eta soziala behar bezala kontuan hartzen. Arcosen arabera, Rawls justiziaren teoria ideal bat ezartzera bideratzen da, ekintza politikorako gida gisa balio dezakeena, eta onartzen du errealitate politiko eta sozialean egoera batzuetan ezin direla bere justizia-printzipioak modu idealean aplikatu.

(Sandel on Rawls)

Bere "Justizia: Behar duguna egiten al dugu?" liburuaren seigarren kapituluak, Michael J. Sandelek John Rawlsten justiziaren teoria defendatzen du, zeinak argudiatzen duen justiziak gizartean baliabideak eta aukerak ekitatez banatzea eskatzen duela. Rawlsten ustez, justiziak

oinarri izan behar du erabaki politikoak eta sozialak hartzeko, eta desberdintasuna justifikagarria da soilik egoera ahulenean daudenei mesede egiten badie.

Era berean, Sandelek Rawlsek ezjakintasunaren jatorrizko posizioari eta beloari buruz duen teoria azaltzen du, pertsonen justizian inpartzialtasunez eta alborapenik gabe pentsatzen laguntzeko irudimenezko tresnak baitira. Rawlsten arabera, jatorrizko posizioan, pertsonen gizartea zuzenduko duten justiziaren printzipioak adosten dituzte, jakin gabe zein posizio sozial edo ekonomiko izango duten. Horrek printzipio zuzenak aukeratzera behartzen ditu, guztiei mesede berdina egingo dietenak, baita behartsuenei ere.

Sandelek Rawlsten teoriaren garrantzia nabarmentzen du berdintasunari eta justizia sozialari buruzko eztabaidan, eta nola lagun dezakeen politika publikoa informatzen hezkuntzan, osasunean eta aberastasunaren banaketan. Era berean, Rawlsten teoriari kritika batzuk egiten dizkio, kultura-aniztasunari behar bezala heltzen ez diolako kritika eta aukera-berdintasunaren inguruan duen ikuspegiak emaitzen desberdintasunari heltzen ez diolako kezka barne.

Jürgen Habermas. La desobediencia civil.

Habermasek honela definitzen du desobediencia zibila: indarkeriarik gabeko protesta politiko mota bat da, lege bidegabe bat urratuz egiten dena, bidegabekeria sozial bat nabarmentzeko eta legedia aldatzeko helburuarekin.

El cambio en el escenario de la protesta

60-70 urteetan oso eztabaida bizia sortu zen: ekintza kriminalen eta desobediencia zibilaren arteko aldea, baina oraindik ere bazegoen, eta pertsona batzuek desobediencia zibila ekintza kriminaltzat hartzen zuten.

70eko hamarkadan protesta mota berri bat sortu zen. Protesta mota hori ezin zen debekatu alderdi politiko bat balitz bezala. Etxebizitzen okupazioa, eraso baketsuak, martxa baketsuak Ekintza horiek guztiek komunean dute oinarritzko ekimenen zati bat, modu espontaneoan eratuak, modu heterogeneoan osatuak, edukiz oso zabalak eta jarduteko moduari dagokionez deszentralizatuak.

Hasieran, komunikabideek bandalismo ekintzatzat jotzen zituzten protestak, kasu batzuetan gerra-tatxandolotzat. Sortzen ziren bake-zelaiak gerrillaritzat jotzen ziren.

Ikuspegi horrek nahastu egiten ditu gaizkilez osatutako koke-talde txiki batzuek egindako delituak eta moralki oinarritutako desobedientzia zibilaren ekintzak.

Lehen aldiz, desobedientzia zibila kultura politiko heldu baten elementu gisa lotzen da. Bere buruaz ziur dagoen zuzenbideko ezpata demokratiko orok desobedientzia zibila bere kultura politikoaren osagai normalizat jotzen du, hain zuzen ere beharrezkoa delako. Protesten kasuetan, errepublika demokratikoaren konstituzio-oinarriekin identifikatzea falta zen; izan ere, errepublika hori beharrezkoa da protesta-ekintza bat bere izaera sinbolikoan soilik ulertzeko, baita juridikoki zilegi denaren mugak gainditzen dituen ere.

Desobedientzia zibila protesta politikoa egiteko modu bat da, bidegabekeria sozial bat nabarmentzea eta legedia aldatzea helburu duena. Erresistentzia baketsu modu bat da, non herritarrek bidegabetzat jotzen den lege baten legitimitateari aurre egiten dioten, modu kontziente eta ez-bortitzean publikoki urratuz. Baita gehiengo sozial baten babesarekin ere.

Jürgen Habermas filosofo alemaniarrek dio desobedientzia zibila herritarrek parte hartzeko modu legitimoa dela, demokrazia indartzen duena, betiere zuzenbide-estatuaren mugen barruan gauzatzen bada. Horrek esan nahi du lege bidegabe bat desobeditzen duten herritarrek prest egon behar dutela beren ekintzaren legezko ondorioak onartzeko eta beren kasua defendatzeko.

Desobedientzia zibila protesta eraginkor gisa ikus daiteke, injustizia sozial baten aurrean arretoa erakartzeko. Lege bidegabe bati desafio publikoa egitean, herritarrek eragin dezakete iritzi publikoan eta aldaketa politiko esanguratsuak eragin ditzakete.

Hala ere, desobedientzia zibilak ere erronkak dakartzkio zuzenbideko estatu demokratikoari. Legea urratzeak legearen autoritatea ahuldu dezake, eta gizarte-kohesioa ahuldu, egonkortasun politikoaren mehatxutzat hartzen bada. Beraz, garrantzitsua da lege bidegabe bat desobeditzen duten herritarrek modu baketsuan eta indarkeriarik gabe egitea, eta beren ekintzaren legezko ondorioak onartzeko prest egotea.

Laburbilduz, desobedientzia zibila herritarrek parte hartzeko modu legitimoa da, demokrazia indartzen duena, betiere zuzenbide-estatuaren mugen barruan gauzatzen bada. Erresistentzia baketsua eta indarkeriarik gabekoa egiteko modu bat da, injustizia sozial bat nabarmentzea eta legedia aldatzea bilatzen duena.

Koronabirusaren krisiak erronka etikoak ditu, batez ere gainezka dauden ospitaleetako triajeari buruzko erabakiak hartzeko garaian eta konfinamendua altxatzeko garaian. Bi kasuetan, giza duintasunaren aurkako erabakiak hartzeko arriskua dago.

Habermasek argudiatzen du arrazoi ekonomikoak saihestu behar direla, eta erabakiak tratamenduaren arrakasta-probabilitatean soilik oinarritu behar direla. Gainera, agintariek ez dute azkar altxatu behar isolamendua krisi ekonomikoa arintzeko, horrek herritarren bizitza arriskuan jartzen badu. Krisi honetan Europako herrialdeen arteko elkartasunaren garrantzia ere nabarmendu du Habermasek. Oro har, Habermasek uste du krisi honek agerian utzi dituela adituen jakintzaren mugak eta pertsonak babesteko beharra.

Badira pandemiarekin lotutako desobedientzia zibilaren adibide batzuk, Habermasen teoriarekin lotu daitezkeenak. Kasu ezagunenetako bat gobernuek birusaren hedapena geldiarazteko ezarritako murrizketa-neurrien aurkako protestak eta manifestazioak izan daitezke. Protesta horiek hainbat herrialdetan sortu dira, batzuetan gai politiko, ekonomiko edo sozialek eraginda, eta beste batzuetan prebentzio- eta kontrol-neurrien beharraren edo eraginkortasunaren inguruko desadostasunek eraginda.

Habermasen ikuspegitik, horrelako ekintzak desobedientzia zibil legitimoaren modutzat har daitezke, baldin eta hartutako neurrien kritika arrazional eta oinarrituan oinarritzen badira, eta modu baketsuan eta besteen eskubideak errespetatuz egiten badira. Ildo horretan, desobedientzia zibila herritarrek parte hartzeko modu bat izango litzateke, erabakiak hartzerakoan eragiteko eta krisi-garaian eskubide eta printzipio demokratikoak baliarazteko. Hala ere, garrantzitsua da kontuan hartzea desobedientzia zibila ez dela edozein egoeratan edo edozein modutan erabil daitekeen ekintza politiko mota bat.

Laburpena: Jürgen Habermasek bere liburuan dioenez, desobedientzia zibila herritarren erresistentzia modu legitimoa da demokrazia konstituzional batean, betiere zenbait printzipio etiko eta juridiko errespetatzen badira.

Habermasek dio desobedientzia zibila Estatuari presioa egiteko modu eraginkorra izan daitekeela, bere politika bidegabeak edo legez kanpokoak zuzen ditzan, betiere legezkotasunaren mugen barruan eta indarkeriarik erabili gabe egiten bada.

Egileak azpimarratzen du desobedientzia zibila ez dela ekintza indibidual bat, existitzen den ordena politikoaren eraldaketa bilatzen duen protesta kolektibo bat baizik. Era berean,

desobedientzia zibila Estatu baten osasun demokratikoaren adierazlea dela dio, lege-esparruaren barruan disidentziarako eta erantzunerako espazio bat dagoela erakusten baitu.

Azkenik, Habermasek ohartarazi du desobedientzia zibila ezin dela erabili hirugarrenen eskubideen urraketa justifikatzeko edo gehiengoaren gain gutxiengo baten borondatea inposatzeko. Alde horretatik, desobedientzia zibila erresistentzia politiko legitimoaren modutzat hartu behar da, betiere zuzenbide-estatua arautzen duten printzipio etikoak eta juridikoak errespetatzen badira.

Hannah Arendt. Indarkeriaz.

Hannah Arendt-en “Indarkeriaz” liburuaren bigarren atalean, indarkeriaren kontzeptua aztertzen da. Arendt-ek esan nahi duenez, indarkeria boterearen jatorrian dago, eta botereak bidegabekeria eragiten du, hau da, legea kanpo egiten du.

Arendt-ek, indarkeriaren kontrako eraso militarra soilik ez da indarkeria, baizik eta kaltetuen mugimendua da. Indarkeriaren kontrako eraso politikoa bidegabea izan daiteke, hau da, botereak indarkeria erabili badu, inoiz ere indarkeria izan ez daiteke.

Indarkeria, hainbat faktoreetan oinarrituta, gertatzen da, baina Arendt-ek bere ikerketan, legea kanpo, erakundeak kaltetu egiten dituela nabaritzen du. Horregatik, erakunde demokratikoak kaltetuen defentsa eta babesa izan behar du, hainbat indarkeria mota saihesteko.

Arendt-ek azaltzen duenez, indarkeriaren kontrako eraso politikoa bidegabea izan daiteke, horregatik, indarkeriaren kontra borrokatzea, indarkeriaren erabilera saihestea, erakunde demokratikoen bidez, borondate bidez eta legearen arabera egin behar da.

Gezurra, Arendt.

1.1 Gezurra

- Gaur egun arrunta.
- Gizarte modernoan problematikoagoa bihurtu da.
- “Diskrezioa”
- Gezurra esateko ahalmena (errealitatetik aldentuta, gauzak ezberdinak izan daitezkeela imajinatzea) eta ekiditeko gaitasuna (zerbait suntsitzea zerbait berria eraikitzeko) elkarlotuta. Horretarako, irudimena behar. Era berean, zerbaiten existentzia baieztatu edo deuseztatzeko mentalki askatasuna behar da ekidin nahi baduzu.
- “Ninguna declaración táctica puede situarse más allá de toda duda – tan segura y protegida contra los ataques ... (5. or lehen orriald.)
- Gezurrak sarritan errealitatea eta arrazoa baino erakargarriagoak
 - < gezurrak dioena badaki audientziak zer entzun nahi duen. Errealitateak, aldiz, gu ustekabekoari aurre egitera garamatza sarritan.
- Normalean, errealitateak gezurra garaitzen du. Ezin daiteke gezurra printzipio gisa ezarri.
- Puntu batetik aurrera, gezurra kaltegarria < audientziak, bizirautearren, ez dio garrantzirik ematen egia edo gezurra denari.

1.2 Gezurra eta politika

- Ekimena da politikaren gakoa.
- Politikan gezurra ez da engainua edo errakuntza. Gezurra nahitaezkoa da, legitimotzat jotzen da eta egia manipulatu nahi du helburu politiko jakin batzuk lortzeko (iritzi publikoa manipulatzeko, interes pertsonalak babesteko edo ekintzak justifikatzeko).
- Gezuraren boterea > historia berridatzi: garaiko pentsakera politiko hegemonikoaren jarraipenerako, eta ideologia horrekin bat ez datozen datuak ezabatzeko.

- Ez du balio gertakari hori ezabatzea existitzen dela ukatzearekin soilik. Horretarako, suntsiketa totala behar da. Dena den, ez da inoiz dimentsio horretako borondaterik egon, eta egon izandakoan, hori burutzeko boterea ere totala izan behar da.
- Politikarekiko gezurrak publikoak erakundeetan eta demokrazian oro har duen konfiantza ahuldu dezake.
- Azken batean, Arendtek dio egia funtsezkoa dela politikarentzat eta gezurra oztopo izan daitekeela askatasun eta demokraziarentzat. Politikariek zintzoak izan behar dute publikoarekin, eta egia argi eta garbi eztabaidatzen utzi behar dute, gizarteak erabaki informatuak har ditzan.

1.3 Gezur motak

- Arendten ustez, politikan dagoen gezur modurik arriskutsuena ideologia bihurtzen dena da, munduaren ikuspegi bat, gezur batean oinarritzen dena eta zapalkuntza eta indarkeria justifikatzeko erabiltzen dena. Horren adibide dira totalitarismoa eta nazismoa.
- Beste sailkapen mota bati buruz ariko gara:
 - a. Gobernuarentzako lan egiten duten harreman publikoen adituen gezurra.**
 - Publizitatea: kontsumo gizartea, merkatu ekonomia
 - Arazoa:

del especialista de relaciones públicas es que él opera solamente con opiniones y «buena voluntad», con la disposición a comprar, esto es, con intangibles cuya realidad concreta es mínima. Esto significa que, por lo que se refiere a su inventiva, puede llegar a considerar que no existe más límite que el cielo, puesto que carece del poder del político para actuar, para «crear» hechos y, por consiguiente, de esa sencilla realidad cotidiana que fija límites al poder y ata a tierra las fuerzas de la imaginación.

- Muga: aditu horiek diote jendea manipulatu izan daitekeela produkturen bat erosteko, baina ez dela manipulatu izaten ikuspegi politiko eta iritzi ezberdinak

lortzeko.

b) “Arazo konpontzaileen” gezurrak

- Normalean Kudeaketa sailean kargu garrantzitsua duten gizonak, esparru militarrekin harreman handia.
 - Haien ustez, kanpo politikaren “arazoak” konpontzeko prestatuak.
 - Konfiantza gehiegi. Gizon inteligenteak, baina harroak.
 - Irabaztera ohituak
- Gezurra esan zuten ez herrialdearengatik baizik eta herrialdearen irudia mantentzeagatik.
- Politika harreman publikoen adar gisa.
- “Legeak” bilatu > gertakari historiko zein politikoak aurrean

Jean-Luc Nancy. Demokrazia

"Democracia en suspenso" liburuko "Democracia finita e infinita" kapituluan, Jean-Luc Nancyk demokrazia aldi berean kontzeptu mugatu eta infinitua delako ideia aztertzen du. Nancyk dio demokrazia mugatua dela ezarritako arau eta prozedura jakin batzuetan oinarrituta dagoelako, hala nola boto-berdintasunean eta giza eskubideen babesean.

Hala ere, Nancyk dio demokrazia ere infinitua dela, beti baitago hobetzeko eta eraldatzeko prozesuan. Demokraziak ez du inoiz lortzen erabat gauzatzea, beti baitaude arazo eta erronka gehiago. Demokrazia inoiz erabat lortu ezin den ideala da, baina beti jazarri behar da.

Nancyk ere argudiatzen du demokrazia elkarrizketa eta eztabaida publikoaren bidez garatzen den kontzeptua dela. Demokrazia ez da bakarrik arau eta prozedura multzo bat, baizik eta bizitzeko modu bat ere, non jendeak modu irekian eztabaida dezakeen eta bere ezberdintasunak modu baketsuan konpon ditzakeen. Azken batean, Nancyk demokrazia babestearen eta defendatzearen garrantzia defendatzen du, gizartearen funtsezko balio gisa.

3. Non egiten da politika?

Estatuaz eta Nazioaz

Estatua “elkarte” berezi bat moduan definitzen badugu, estatuko kide izatea derrigorrezkoa da, beraz, gu estatu bateko kidegara. Estatua lurralde jakin batera mugatuta da, askotariko interesen bitartekariak dira. Estatuak iraunkorrak, beharrezkoa, burujabea eta indar legitimoaren monopolio arrakastatsua du.

Bestalde, Estatuaren funtzio ideologikoren aldetik definitzen badugu, botere sareen kristalizazio eta berauen birsorkuntzarako tresna da. Hala ere, botere egituraketa batek beti dauka irakurketa ideologiko bat, honi forma zehatz ematen baitiolako. Hortaz, ikuspegi bakoitzak berea propioa emango du. Beraz, marxismotik irakurrita, estatuaren lekua, ikuspegi estrategiko-harremanezkoa da, Bob Jessopen esanetan. Liberalismotik, demokrasi liberala da, Cayetana Alvarez de Toldeoren hitzetan eta globalizazioaren arabera, Saskia Sassenek dio, globalizazioa ez dela Estatuaren desagertzea.

Bob Jessop-en hurbilketa estrategiko-harremanezkoan gehiago sakonduz, estatuaren inguruan edo azpian eraunde anitz daude harreman aldakorren, beraz, Estatua/sistema politikoa elkarreraginean dago eta harreman horiek formazio sozio-historikoen menpe daude, feudalismoa, kapitalismoa... Beraz, Bob Jessopek planteatzen duen galdera bat da, zein puntutaraino den estatua ikuse jakin baten tresna. Gainera, Estatuaren jardueraren diskurtso legitimitzaileak aldakorak dira eta lehia hegemonikoaren menpe daude, beraz, estatuaren kohertzioa beti dago eskura, baina, konsentimendua lortzeko bide anitz daude aurretik. Bestalde, gizartea, gaur egun, ez da errealitate empiriko itxia, gizarte globalean bizi garelako, nahiz eta, gizarte estatalak sendotzen hasi. Ildo horretatik, interes komunak edo orokorra definitzerakoak “selektibitate estrategiko” da nagusi, eta orokor gisa definituak izan daitezkeen interesak ez daude berdintasun egoeran, kanpoalde eratzailak definitzen baitu “orokorra” zer den. Hau da, estatuak bati gehiago legunduko dio beste bati baino edo interes multzo bati atea irekiko dio gehiago beste bati baino, ibilbide, hegemoniaren borroka eta beste hainbat faktoreren arabera, nahiz eta, denak estatuaren parte izango garen, horrela, kristalizatu egiten ditu dauden botere-harremanak.

Guzti hau ez da estatikoa, prozesu historiko baten barnean legoke. Ez da Estatua bai ala ez, prozesu bezela ulertu behar dugu. Tillek dio hiru hartu behar direla kontuan:

- **Estatugintza:** estatu eraikuntza, estatu juridiko baten eskaera eta lorpena da, hau da erribindikazioa eta lorpena. Gainera, estatua eraikitzen doa lurralde jakin batean eta honen helburua estatuak ahalik eta eraginkortasun gehien izatea da.
- **Herrigintza:** demokratizazioa herritartasunaren osaketa izango liltzateke. Hori da herrigintza, demokratizazioa, herritartasunaren sendotze prozesua herri ekintza, Politika Publikoak eta erreindikazioaren bitartez. Honen helburua aldiz, soberania popularraren, herritartasun kohesionatuagoa lortzea da.
- **Naziogintza:** estatuaren lurralde eta komunitate eremu horretan sentimendu kolektibo baten osaketa eta garapena da, hau da, kideztza sentimendua sortzen duen historia, hizkuntza eta kultura. Hau sortu eta garatzen duen prozesu. Berriz, honen helburua, subiranotasun nazionalaren kontzeptualizazioan kideztasun sentimendua areagotzea.

Hiru elementu haue elkar lotuta daude eta batzutan aurrera egiten dute eta beste batzutan atzera, egunero ari arelako egiten edo desegiten. batzutan batzuetan aurrera eta bestetan atzera. Egunero hari gara egiten edo desegiten.

Estatu gehienetan, prozesu historikoetan horrela eman da prozesua, baina, badira bide ezberdinak erabili dituzten estatu desberdinak. Lehenengo estatu batek egiterako unean, estatugintza ematen da aginte bat ezartzen delako, gero herrigintza herritartasuna garatzen legitimitatea eraikitzea errezagoa delako eta ostean naziogintza.

Estatua, gizarte eta merkatua, joko horretan sartzen dira. Ez dira azpiegituretik kanpo aurkitzen diren prozesuak eta horietako bakoitzak hartzen duen lekuaren arabera izango da ikuspegi ideologiko bakoitza. Besteak beste, merkatuak estatuaren gainetik dagoela esanez gero, estatua menpeko izango da eta logika merkantilistak edukiko du nagusitasuna. Aldiz, estatua merkatuaren gainean kokatuz gero, kontrol publiko bat eman liteke. Estatua gizartearen gainean kokatzen bada, kolonizazioaren logika bat eman litzateke, gizartea eta pertsonak merkatu edo merkantzia izango balira bezala ulertuko direlako. Gizartea merkatuaren gainetik kokatuz gero ordea, ekimen sozialak nagusituko lirateke, logika merkantilista horren aurrean.

Estatuaz eta Soberaniaz

Dimentsio juridiko batetik, estatu definitzen dugunean erabiltzen ditugun hiru elementu nagusiak Estatua ordenamendu juridikoa, Estatua aparatu juridiko politikoa eta Estatua komunitate politikoa dira.

Baina, horietan sakondu aurretik Charles Tilly-k. Estatu eraikuntzaren definizio formala egingo digu. Bere hitzetan “Estatua eraikuntza egongo da baldin eta agintari profesionalak agertzen badira, egonkortua dagoen lurraldearen gaineko kontrola eta horrekiko leialtasuna, estatu zentralizatu eta autonomia duten erakunde iraunkorra badaude, populazio jakin baten gaineko biolentziaren monopolioa dutenak”.

Hiru elementu nagusi:

1. Estatu Ordenamendu juridiko gisa: Espainiar eta Frantziako estatuaren inguruan mintzatzen, estatu mota honi egingo zaio erreferentzia. Hau da, ordenamendu juridikoa duen edozein antolaketa arautua. Bilboko udalaren kasuan adibidez, borondatez, gorako ordenamendu bati utzi ahal dizkio eskumenak, baina, nahi badu bakarrik. Ez da eratorria eta estatu burujabea da.
2. Estatu Aparatu juridiko politiko gisa: Egitura instituzional bat da. Ordenamendu juridikoa kudeatzen duena, Estatu esaten dugunean, hau ere bada.
3. Estatu Komunitate Politiko gisa: Horrela antolatzen den komunitate politiko bat deitzen dugu Espainiar estatua, Frantziar estatua...etab. Hau da, modu horretan antolatzen den komunitate bat lurralde jakin batean.

Soberaniaren doktrina juridiko-politikoa (C.De Cabo)

1. Estatuaren gorentasuna.

- a. Estatuaren gorentasuna defentsaren bidetik Estatuaren mekanismoen defentza daukagu, ez eliza, ez erregeren defentsa. Hortaz, beste botereen eragina ukatzen da.
 - i. Ukazio gaitasuna esango diogu, Estatu kanpoan dauden beste aktorek ez barneratzeko ez eragiteko.
 - ii. Aginte gaitasuna: Bodinen arabera, subiranoak bere agintea murrizketarik gabe eta bere boterea beste organo edo erakunde batzuekin partekatu gabe erabiltzeko gaitasuna izan behar du.

Aginte-gaitasun hori aginte-figura bakarrari dagokio, dela monarkari, dela izendatutako gobernariari.

- b. Gizartearen defentsaren bidetik, Estatuaren gorentasunera iritzi egiten da gizartearen defentsaren bidetik. Lortu daiteke, biak elkartuz edo herrigintzatik. Nahiz eta, hasiera batean, kontrajarriak dauden estatua eta herriaren soberania.
 - i. Erdiaroan, Subiranotasun mugatua, bikoitza: Oraindik estatua ez dena, herrian daudenekin konpromezu batzuetara iristen da. Hainbat gauza errespetatu behar ditu, esaterako, foruak. Hauek errespetatzearekin, foruen defentsa egiten ari direnak, erregearen alde egingo dute (fideltasuna) Prozesu honi, soberania segmentarioa deituko zaio eta apurka soberania lortzen joango da.
 - ii. Subiranotasun nazionala: Soberani nazionalaren kontzeptua, erregea kenduz nazioa jartzeari egiten dio erreferentzia. Burgesia nazionalaren, soberania nazionala da. Sufragio zentsitarioa zegoen ezarrita, hau da, edozeinek ezin zuen bozkatu eta edozein ez zen bozkatua. Ordezkariak nazioaren ordezkariak dira eta eraikuntza nazionalaren tresna nagusia. Momentu jakin batean, modernizazioa eta kapitalismoaren ondorioz, agenda publikora jendea ekartzen du. Nekazariak hirietara doaz eta jada hauei ezin zaie esan ez direla subjektu politiko. Ondorioz, Soberania demokratizatzen hasten da eta soberania popularra sortzen da.
 - iii. Soberania popularra ez da ordezkapen bat, soberania nazionalaren barruan sortuko da. Hau da, nazionala eta popularra batu egingo dira eta mandato inperatiboa eta sufragio zentsitarioa erori egingo dira. Beraz, denok bihurtzen gara soberanoak, gu izango gara gure buruaren soberano.

2. **Estatuaren batasuna:** Honekin ere arazoak egon ziren. Erregea dagoenean erraza da, bera izango delako batasuna. Aldiz, botere banaketarekin ez da garbi geratzen zein den batasuna. Hori dela eta , egun ematen diren eztabaidak estatuaren soberaniaren inguruan ematen dira. Norena da Estatuaren soberania? Zuzenbide estatu batean, kontra pisuak dira eta zaila da esatea zeinek daukan azken erabakia gatazka baten aurrean. Izan ere, erabaki hau hartzen duena izango da soberanoa. (155 Katalunia)

Laburbilduz, subiranotasunaren kontzeptuaren azalpena, estatuak historian zehar subiranotasun hori nola eskuratu duten eta zer bideetatik egin duten oinarrituko da. Gainera, gaur egun, krisian dagoela aipatzean, gorentasunaren krisia dagoelako esan nahi du.

Estatuaren gorentasunaren krisia

Estatuaren ordenamendu juridikoa jatorrizkoa eta gorena dala ez dago hain argi. Alde batetik, barne eremuan herritarren eskubide eta askatasunak zaindu behar dituelako, ezin du nahi duena egin. Kanpo eremuan ere krisian egongo da ordenamendu juridikoa dagoelako arlo ezberdietan militar, ekonomiko, merkantila, mugatzen duela...

Bestalde, gobernantzaren aldetik, ez badago argi nor dagoen bestearen ginetik ez da argi geratzen zeinek hartuko duen azkeneko erabakia. Eskema hierarkikoak hautsi egingo dira gobernantzarekin eta horizontalagoa bilakatuko litzateke. Denak esan dezakete zerbait, udalak, Europak, foru aldundiak, autonomia erkidegoak...

Saskia Sassen

Sassenek *Una Sociología de la Globalización* liburuaren 2. kapituluan, estatuaren eta globalizazioaren arteko harremana aztertzen du, ekonomia eta sare digitalak kontuan hartuta. Hasteko Sassenek Estatuaren eta Globaliazazioaren arteko eztabaidan akademian nabarmentzen dituen hiru pozisio nagusiak kokatzen ditu: Lehenengoak dio globalizazioak Estatuaren papera murriztu egin duela. Bigarrenak, gutxi aldatu izan dela, eta finean Estatuaren garrantzia berdina dela eta betidanik egin izan dutena egiten dutela. Hirugarrenak, dio Estatu globalizazioaren aldetetara moldatu izan dela baina ez duela boterea galdu.

Sassenek ordea, pozisio hauei dualismo batean erortzea leporatzen die, nolabait hiru pozisioek sostengatzen dutelako nazionala eta globala elkar ukatzen dutela. Egileak dio, nahiz eta kasu askotan hori horrela izan (esfera nazionala eta globalak kontrajarriak direla) badirela hainbat egitate ez direnak estrutura dual horretan kokatzen, estatu-nazional barnean ekonomia globalari ekarpena egiteko jarduten duten banku zentralak esate baterako. Hartara, Sassenek laugarren pozisio bat mahaigaineratzen du, hurrengoa sostengatuko duena: *“Estatuak ez du globala dena baztertzen, aitzitik, estatua funtsezko eragile bat da globalizazioaren hazkunde prozesuan.”* Nahiz eta, horrek ez duen zertan suposatu behar Estatuaren narriadura bat.

1.- Estatuaren azterketa testuinguru globalean:

Lehenengo atal honetan Sassenek, Estatuaren inguruko teoria soziologiko ezberdinak mahaigaineratzen ditu. Hainbat autorek diote, estatuak berak izan direla globalizazioa ahalbideratu izan duten ente nagusia, eta beraz, estatua eta sistema interestatalak ez dutela aldaketa handirik jasan. Euren iritziz, bizi garen garaian Estatua arrazoi estrukturalengatik aldaketak jasan ahal arren, nagusitasuna mantentzen du, eta estatuak jarraitzen du funtzio historikoa betetzen: esplizituki formulaturiko politika publikoen inplementazioa egitea, hain zuzen. Halaber, Sassenek aipatzen du beste egile batzuek (teoria politikotik datozenak) postulatu dutela desregulazioa eta pribatizazioa Estatu mailako kompetentziak txikiagotzen dituzten prozesuak direla, eta prozesu hauek Estatuak berak bultzatu dituela. Sassenek hirugarren tendentzia bat identifikatzen du, zeinak dioen gobernatzeko kompetentzia nazionalen desplazamendu bat egon dela, esparru publikotik pribatura, eta nazionaletik globalera. Horren adibide dira, maila supranazionalako ente ezberdinak, Komertzioaren Mundu Erakundea eta Merkataritza-Ganbara Internazionala, kasu. Honek erronka batzuk planteatzen ditu herriaren subiranotasunarekiko.

Hala ere, Sassenek dio nahaigo duela zentratzea aipaturiko autoritatearen desplazamendu hori suposatzen ez duten desnazionalizazio prozesuetan. Horretarako, Tillyk egiten duen Estatu-nazioen eta Estatu soilen bereizketa bat mahaigaineratzen du: Estatua indar hertsatzailea duten erakunde ezberdinek osatzen dute, lehentasunarekin jardun dezaketenak bestelako erakunde batzuen aurrean lurralde baten barnean. Estatu nazionala, ordea, hainbat eskualde eta hiri estruktura ezberdin, zentralizatu eta autonomoren bidez gobernatzeagatik ezaugarritzen da. Estatu-nazio zentralizatuak zubi lana egingo luke indar nazional eta nazioz gaindiko mailaren artean.

Jakiteko zein den Estatuak mantentzen duen pozisioa globalizazioaren aurrean, Sassenek esango du, beharrezkoa dela jakitea, nola parte-hartzen duen Estatuak ekonomia globalaren gobernuan, zeinetan desregulazioa, pribatizazioa eta aktore ez-estatalen autoritatea areagotzea gailentzen den. Sassenek argi du Estatuak nolabaiteko parte-hartzea izan duela merkatu globalaren ekonomian, izan ere, maila globaleko hainbat fenomeno antzeman izan ditu maila nazionalen eta dio hauek Estatuaren bidez txertuak behar izan direla (Blackstone adibidea), maila nazionalako lurraldea lege eta fakultate administratibo nazionalengatik arautua dagoelako. Maila nazionalen egindako ekonomia globalaren txertaketa horiek, ordea, hainbat eraldaketa ekarri dituzte, esate baterako, atzerritar enpresa eta inbertsoreetara

moldatu behar izatea. Moldaketa horiek negoziazioaren bidez gauzatzen dira, eta askotan kapital nazionala kapital globala bilakatzeko mekanismoak sortzea eta etzerriko kapitalari eskubide batzuk aitortzea eskatzen du. (Estatu nazioak bere lurraldearen gainean autoritatea mantentzen du). Ekonomia globalaren txertaketa hau estatuen barnean gauzatzen da, neurri legegile, exekutibo, juridiko eta administratiboen bidez. Sassenek dio, planteamendu hau Skopcol eta Wallersteinen planteamendutik bereizten dela. Alde batetik, Skopcolek Estatuaren eragile ezberdinei independentzia estruktural bat aitortzen baitie. Bestetik, Wallersteinen Mundu-sistema teorian, Estatu bakoitzak duen botere estatala, Estatuak sistema ekonomiko mundial hierarkikoan duten pozizioaren ondorio bezala ulertzen duelako. Ikuspegi honen arabera, Estatuak ez lirateke aldaketen pean jarriko baizik eta aldaketa horietan eragiten saiatuko lirateke, euren boterezko pozizioari eusteko. Horrek suposatzen du Estatuak ekonomia globalarekin lotzea bilatuko luketela eta bertan eragitea bilatu.

Sassenek desnazionalizazioaren izaera multibalentea azpimarratzen du. Aipatzen du ez dela soilik merkatu eta enpresen inplantaziora mugatzen, hainbat aktore globalek giza-eskubideak eskala nazionalen txertatzea lortu izan dutela. (Jessop) “Estatuaren papera, estrategien implementazio eta artikulaziorako espazio bezala definitzen duenean, sostengatzen du bere koherentzia behin-behinekoa dela, eta talde konkretu baten hegemonia mailan oinarritzen da. Eta gerta daiteke horrela talde subalternoren batek aparatu estatalean eskua hartzea. ”. Sassenek aipatzen du nazionalaren eta globalaren arteko talka ez dela berria, betidanik egon dela hor. Baina Estatu nazionala mende batez indartzen egon ostean 1980an, enpresa multinazionalen eskubideen instituzionalizazio bat gertatzen hasten dela, mugen arteko operazioen desregularizazioarekin eta entitate supranazionalen boterearen areagotze batekin batera. Sassenek ordea, Estatuarekiko hurrengo tesia planteatzen du: globalizazioaren inguruan sakontzen goazen heinean badirudi funtsean Estatuak izan direla euren autoritateari era partzial batean uko egin izan diotenak ekonomia globalari, eskubide, fakultatea eta botere horiek guztiak aitortzerakoan. Baina desregulariazio horri guztiari erreparatzen baldin badiogu, ikusiko dugu Estatuak izan dela, hau gauzatu duena erregulatu, lege eta neurri judizialen bitartez, legalitate berri baten bitartez. Beraz, Sassenek gogorarazten digu, azken beltzean (en ultima instancia), Estatuak dela kapital globalaren berme nagusia.

Sassenek ñabardura bat egiten du emen. Dio eskubide horien garantea Estatuak izan dela baina pribatizatzen ari dela. Egileak dio lehen aipaturiko legalitate hori, ekonomia globalari boterea, eskubideak... aitortzen dizkionak soilik estatu boteretsuenek ekoizita dela. Hau da,

soilik AEBk eta Britainia Handiak ekoitzen dutela legalitate hori eta sistema supranazionalari inposatzen dizkiotela.

Beraz, labur esanda, alde batetik, estatuak globalaren txertaketa gauzatzen du maila nazionalan, eta era berean horrek estatu mailako funtzio eta fakultateen desnazionalizazio bat suposatzen du. Desnazionalizazio forma horiek maila ekonomiko batera mugatu izan dira, nahiz eta hori baina aberatsagoak izan zitezkeen, eskubide mailan, kultura mailan.. Sassenek bukatzeko aipatzen du Estatu sistema globalaren defizit demokratikoa kontrolatzeko tresna bezala uler daitekeela.

2. Ekonomia globalaren instituzio eta lurralde txertaketa.

Hasteko Sassenek ekonomia globalaren hiru ezaugarri nagusi nabarmentzen ditu: lehen, dio ekonomia globalak globalizazioa prozesu ekonomiko soil batera mugatzeko joera du. Wallersteinek ekonomia mundiala estatu territorialen arteko harreman sare bat bezala kontzeptualizatzen du, horrela globalizazioa kapitalaren hedapen ekonomiko global batera mugatuz. Bigarrena, ekonomia globalaren jardura edo salerosketen maneia era zeharo desproporzionatua banaturik aurkitzen da munduan. Gehienak, Ipar Atlantikoko zonaldean, gauzatzen dira, ideia hau Sassenek ekonomia globalaren geografia estrategikoa deritzo. Sassenek dioten bezala, mundu mailako botere desoreka horrek erregulazioaren auizia zailtzen du. Hirugarrena, ekonomia global honek forma espezifikoak hartzen du, hiri globalen eta Silicon Valley bezalako nukleo teknologikoen baitan. Hiru ezaugarri hauengatik, dio Sassenek Estatuak, ekonomia globalaren erregulaziorako hainbat aukera ditu. Halaber, Sassenek sostengatzen du geografia estrategiko horretan Ipar Atlantikoaren modelo geoekonomikoa (zuzeneko atzerriko inbertsioen eta kapitalen merkatu globalaren bitartez neurtua) hainbat aldaketa jasan dituela eta magaz gairako eredu baterantz goazela, zeinetan estatuak ekonomia nazionalaren eta globalaren arteko bitartekari lanak egitea behar ez den.

Sassenek, sare mundialen bitartez, gauzatzen den boterearen zentralizazioa salatuko du. Bere ustez, atzerri inbertsioek eta kapitalen fluxuek dispersio geografikorako tendentzia bat azaleratzen dute. Praktika hau, Bilbon bizi izan genuen, Euskaldunako ontziolaren eta desindustrializaziorako plan ezberdinen bitartez. Munduan gauzatzen den enpresa eta zerbitzuen deszentralizaziorako joera hau, Sassenek asko lotzen du boterearen eta errentaren kontzentrazioarako tendentzia batekin. Bere ustez, posiblea da esatea enpresak gero eta gehiago globalizatzen diren neurrian, gero eta gehiago zentralizatzen direla kudeaketaketa funtzioak eta hauen garrantzi maila. Honek ere, enpresentzako koordinaziorako eta

kudeaketarako lan izugarria dakar. Sassenek esango du, beraz, globalizazioa espazio ekonomiko baten sorrera supraestatalaz gain baduela, bere ezkutuko aldea, espazio horrek suposatzen duen kudeaketa andana. Horrek guztiak egitura bat behar du. (herriaren subiranotasuna?) Kudeaketa hau oso zentralizatua dago eta herrialde garatuenetako lurralde nazionaletan gauzatzen da.

Estatuaren fakultate erregulatzailerik dagokionez aipatuko du, Ameriketako Estatu Batuetan eta Europan, non transakzion fluxua handia den, iritzi ezberdinak dituztela, arau eta erreglamenduekiko. Bi zonalde hauek, nahiz eta elkarren artean bestelako lurraldeekiko baino antzekotasun askoz handiagoak izan, ulerkera ezberdinak dituzten muga arteko arauak dagokienez. Sassenek adibidez, Europa zentral eta ekialdeko arau antimonopolikoak aipatzen ditu, zeinak Estatu Batuetan ezarri nahi baldin badituzu, epaitegietara jo behar duzun. Hala ere, lurralde hauek alor ekonomikoan izandako pisuarengatik gaitasuna dute, zirkulaziorako erraztasunak izan dituzte bai eta euren legailate munduko bestelako enpresei inposatzeko gaitasuna ere. Halaber, Sassenek mugaz gaindiko merkataritza areagotu dela dio, eta neurri batean, muga-zergen murrizpen batekin lotzen du. Bukatzeko Sassenek aipatzen du nahiz eta geografia estrategiko hau maila nazionalen kokaturik dagoen, horrek ez duela esan nahi marko nazionalen erregulatu dezaketarik. Honek bi pozisio nagusi dakartza: nazioz gaindiko eragileak interpelatzea ekonomia globalean funtzio erregulatzailerik ezar ditzaten (Maila internazionalen ordenamendu juridiko bat sortzea)

3. Estatu nazionalen parte-hartze desnazionalizatua ekonomia globalean.

Sassenek dio, badaudela ekonomia globalaren hainbat funtzio espezializatu, zeinak ezin daitezkeen enpresen egoitza zentraletan gauzatu: esaterako, ekoizpena, erreprodukzioa, zerbitzuetaz hornitzea eta finantziarioa. Funtzio horiek betetzeko hainbat enpresa hiri globaletara jotzen dute, horretarako toki estrategikoak baitira. Hiri hauek, lurralde nazionalen kokatuta daudenak, desnazionalizaziorako dinamika nagusiak gauzatze diren espazio organizatibo eta instituzionala ordezkatzeko dute. Hau hobeto Junek.

Sassen Estatuaren eztabaidan sartzen da: argi geratu da estatua merkatuaren logikara sometitu dela, ez duelako gizartearen bizitza sozial eta ekonomikoan interbenitzeko gaitasunik. Zentzu horretan, irakurketa honek bat egingo luke, Estatuaren ulerkera marxista klasikoarekin (estatua klase zapaltzailearen tresna bilakatu da). Sassenek, ordea, esango du Estatuaren eta merkatuaren arteko dulismo hori okerra dela. Estatuak funtzio konstitutibo bat betetzen duela merkatuaren osagarritzean, eta beraz, ez dela soilik interbenitzera mugatzen. Ez dira

elkarrekiko independenteak diren bi esfera. Merkatuak, neurri handi batean autoritate publiko zilegi bat behar du jabetza pribatuaren defentsa, kontratuen exekuzioa... Eta era, berean, Estatuak meraktuan hainabt jarduera bete behar ditu (inflazioa kontrolatzea, behar kontraktualak burutzea..). Ondorioz, Sassenek sostengatzen du, dugun Estatu forma (Merkatua laguntzen duen estatua, lanaren estatua edota estatu lehiakorra) artikulazio forma bat dela. Baina bere funtzioa aldatu eta baliatu daitekeela estatu parte-hartze eta kooperazia sustatzeko, justizia sozial eta ardura demokratikoak eskatzeko eta ekonomia global batean funtzio erregulatzailak betetzeko.

Suntsipen sortzailea: Agentea, eskubideak, lurraldea (Sassen)

Sassenen arabera, suntsipen sortzailea ekonomia globalizatuak dagoen gizarte- eta lurralde-egituran aldaketa sakonak eragiteko prozesuari dagokio. Prozesu horrek antolaketa ekonomiko eta sozialaren forma zaharrak suntsitzea dakar, baina forma eta egitura berriak sortzeko tartea ere irekitzen du.

Agintearen testuinguruan, Sassenek argudiatzen du globalizazioak estatu-nazioak ahuldu dituela agintaritza politikoaren iturri nagusi gisa, eta mundu mailako botere- eta gobernantza-modu berriak sortu direla. Nazioz gaindiko erakundeek, hala nola korporazio multinazionalak eta gobernuz kanpoko erakundeek, eragina eta boterea irabazi dute, estatuen autoritate tradizionalari desafio eginez.

Eskubideei dagokienez, Sassenek dio globalizazio ekonomikoak desberdintasun- eta bazterketa-modu berriak sortu dituela, eta talde kalteberei eta behartsuei eragin diela. Aldi berean, eskubideen eta erreklamazioen hizkuntza berri bat sortu da, non gizarte-mugimenduak eta gobernuz kanpoko erakundeak giza eskubideen onarpenaren eta babesaren alde borrokatzen diren, testuinguru globalizatu batean.

Lurraldeari dagokionez, Sassenek dio globalizazio ekonomikoak espazioaren eta boterearen arteko harremanak berrantolatu dituela. Hiri globalak botere ekonomiko eta finantzarioaren funtsezko gune bihurtu dira, eta populazioa gentrifikatzeko eta lekualdatzeko prozesuak izan dituzte. Gainera, kapital-, eskulan- eta teknologia-fluxu transnazionalak erronka jo diete muga nazionalari, eta geografia ekonomiko eta sozialak berrantolatu dituzte.

Krasner autoreak soberania motu batzuk azalduko dizkigu.

- **Barnekoa:** Azpimarratzen da, zenbateraino dagoen agintea bat eskubide eta askatasunen eremua definitzen duena, eta herritarren autoritatea jasotzen duena. Hau aurrera eramango balitz, badago nolabiateko soberaniaren ibilbidea. Hau da, estatu batera irizten da. Alegia, demosa osatua dago, agintea definituta dago eta herritarren eskubide eta askatasunak josatzen dira. Estatalitate subalternoak dira. Hemen Euskal Herria eta Katalunia kokatuko genuke. Katalunia Barnetik Legezko nazioarteko pausua egiten saiatu zen.
- **Legezko nazioartekoa:** Honek erakusten du subiranotasuna formala estatu independente gisa, ez da estatalitate subalternoa. Nazioarteko eremuan aitortza bat duzulako, zu zara jada estatu independente bat. Honen adibide Grezia daukagu. Jauziak nazioarteko estatus bat ematen dizu eta zabaldu egiten du ordenamendu juridiko internazionalaren babesa. Honek ziurtatzen du ez zaudela beste estatu batek esaten duenaren menpe. Kualitatiboki jauzi garrantzitsua da. Printzipioz, zuk nazioarteko aitortza baduzu, baina, zuk zure barnean modu eraginkorrean aritzeko tresna eraginkor bat eta legitimitatea behar dituzu.
- **Westfaliarra (1648):** Kanpo eragileen ukapen-gaitasuna. Legezko nazioarteko burujabetza lortzen duzunean, hurrengo urratsa dator. Kanpoko eragileen eragina ukatzeko gaitasuna. Zuk barne autoritatea izan dezakezu, baita independentzia juridiko formala, baina, kanpoko eragileen ukapena baduzu, ondorioak izango dira. Adibidea, Greziaren kasua. Bai Espainia, bai grezia interbenitua egon dira. Oso gutxi dira eredu Westfaliarra edukitzeko gaitasuna daukatenak, esaterako, AEB, Rusia edo Txina. Ukraniak adibidez ez dauka estatu Westfaliarra. EB *Brexit* bidez Europatik ateratzeko erabakia gauzatzen duenean haren gaitasun Westfaliarra agerian utziko du, bere soberania Europar Batasunaren eskura uzteari uko eginez. Rusiak zerga ekonomikoak ordainduko ez dituela esaten duenean, argi ikusten da gaitasun westfalar hori duela.
- **Elkar eraginezkoa:** Mugaz gaindiko mugimenduen kontrola. Interakzioak zure soberania esparruan, hor egon daitezkeen fluxuen (ekonomikoak, ideiak, pertsonak) kontrola. Horren arabera zein da burujabe? Zein da munduan herrialderik burujabeena? Burujabeena Ipar Korea da. Gainera ukaziorako gaitasun handiena daukate, arma nuklearrak baitituzte eskura.

Nazionalismo hutsala eta identitate nazionalaren erreprodukzioa Michael Billig

Nazionalismo hutsalaren kontzeptua Michael Billigek sortu zuen 1995.urtean, berehala klasiko bilakatu zen lanean. Hain zuzen ere, “El nacionalismo banal y la reproducción de la identidad nacional” izenez ezagutua izan dena. Benedict Andersonen “Comunidades Imaginarias” lanarekin gertatu antzera ohiartzuna eskuratutako lana izan zen hau. Bestek beste, nazionalismoari buruzko paradigma ALDATU baitzuelako aztertzerako unean. Haren aburuz, azterketa ez zen zentratu behar zer den nazioa, ezta noiz osatzen den ere, baizik eta nola mantentzen den.

Aurretik aipatutako planteamendu horren baitan Billigek aipatuko du estatu-nazioko mundu batean, estatu-nazio batek hala izaten jarrai dezan, funtsezkoak dituen hainbat sinesmen, irudikapen, suposizio eta praktika egunerokotasunean gauzatzea hiritarren eskutik. Hortaz, nazionalismoaren zutabe garrantzitsuenatzat kontsideratuko du egunerokotasunean gauzatutako praktikak. Honi ertsiki lotuta, Billigek haren azterketa kide nazionalak nola ugaltu eta barneratzen diren paradigmaten inguruan kokatuko du. Praktika hauek berak berebiziko garrantzia dutela defendatuz, batik bat, guk munduan dugun kokalekua finkatuko duelako.

Hala eta guztiz ere, estatu-politika esplizituak edo nazionalismo “sutsuaren” ezohiko zirkulazioak (Adib.: gatazka beliko/kirol-ospakizun handiak) egon ere badaudela helaraziko du Billigek. Baina berriz ere, garrantziaren fokoa egunerokotasun horretan ezarriko du, zeina askotan hain barneratua dugun, non oharkabean pasatzeko joera duten, hortik beraz berak aipatutako “hutsal” izaera hori. Horien adibide batzuk jartze arren, errutinan naturalizatutako eraikin publikoetako banderak edo zigiluetako figurak edukiko genituzke. Hain zuzen ere, hauek berak estatu konkretu bati erreferentzia egiten dion arren, ez baitiogulako garrantzia bereziarik eskaintzen orokorrean. Hirugarren adibide interesgarria zera liteke, telebista ezartzerakoan eguraldiaren parte entzun eta ikusten dugun unea. Bertan ezartzen den mapa, estatu konkretu bati erreferentzia egingo diona litzateke, esaterako Telecinco ezarriz gero Espainiar estatuaren mapa fisikoa egongo da, eta hegoaldean egingo duen eguraldia jakitera ematen duenean, badakigu andaluzia inguruan mintzatzen ariko dela eta ez Italiako hegoaldearen inguruan, beraz berriz ere estatu-nazio baten goraipamen edota oroigarri eraginkorrak emango dira. Arestikoari jarraipena emanez, jendeak bere nortasun nazionala edo **identitate nazionala** ahaztea zaildu egingo da, estatu-nazio horren paradigmatik oraindik jardunez.

Bestalde, Billig psikologoa den heinean, teoria psikologiko tradizionalei kritika bat egingo die. Funtsezkoa da ulertzea, psikologiaren aldetik identitatea geure pertsonaren barru-barruan kokatuko litzatekeela. Nolabait ere geure izatearen sakontasunean itxarotzen dagoen zerbait litzateke. Billigen kritika "La teoria de la identidad social"-aren baitan izango da. Teoria honen oinarria autoklasifikazioan egongo litzateke, aldarrikatuz pertsonak geure identitatearen autoklasifikazioa egin ostean, estereotipo eta ezaugarri batzuk hartzen dituztela beren baitan. Horren ostean egoera edo errealtate bat emango da eta guk horietako estereotipo bat hautatu eta nolabait aktuatu egingo genuke, hala nola, aktibatu eta desaktibatzen den mekanismo baten antzera funtzionatzen duelarik. Adibide argi bat eskainiko da testuan, non esaterako gizabanako baten klasifikazioa *australiarra* dela esanez gero, estereotipo hauekin topa gintezke: festazale zalapartatsua, patriota leiala edo errepublikar antibritainiarrarena esaterako. Plazaratzen den egoeraren baitan erabakiko du gizabanakoak zein den hautu egokiena, eta hala jardungo du.

